

GAIZKA PEÑAFIEL

lagunartean

Gaizka Peñafiel musikariak (Lezama, 1985) txikitatik izan du lotura estua musikarekin. Txistuarekin hasi baina 12 urtekin trikitixara egin zuen salto eta musika tresna honek bere karrera markatu du. Hala ere, beste musika tresna batzuk ere jotzen ditu. 2002an "Lezamako Andra Mariak" herriko jaietako kanta grabatuko du Asier Ercilla, Dani Tomas (Kepa Junkera), Edurtzeta Ania (Ene Bada) eta Harkaitz Allurren laguntzarekin. 2003an "Ekidazu" diskoa kaleratuko du musikari askoren parte hartzearekin, besteak beste: Mikel Markez, Aiora Renteria (Zea Mays), Anje Duhalde, Natxo de Felipe, Iñaki Plaza eta Ruben Isasi, Aintzira Gorosabel edo David Nanclares. Gaizka Peñafielek hamar urte daramatza irakaskuntzan, trikitixa irakasten batez ere, eta hamaika ekimen eta elkartetan parte hartu du.

Gaizka Peñafiel musikaria Bilboko Balea Musika Ideiak estudioa joan da "Lagunartean" diskoaren grabaketak egitera 2011ko udan. Asier Ercillak egin ditu grabaketa, nahasketa, musika ekoizpena eta baita masterizazioa ere, azken hau Unai Gonzalezekin batera. Gaizka Peñafiel kantautoreak musikari andana ekarri du bere lagunartera, bere musika lagunartera edatuz: Alain Asenjok bateria jo du. David Naclaresek gitarra akustikoa, elektrikoa eta baxua jo ditu. Koldo Izagirrek tronboia, Carlos Sanchezek tronpeta. Angel Larak saxoari eman dio. Iñaki Aretxabaletak biolina eta biola jo ditu. Iratxe Mugirek ahotsa sartu du. Asier Ercillak teklatuak zein programazioak landu ditu. Xabi Solanok ahotsa eta trikia jo du "Itsasargia" abestian. Kepa Junkerak trikia jo du "Zure altzoan" abestian. Asier Olazarrek trikia jo du "Lezama" kantuan eta berari eskaini dio diskoa Gaizka Peñafielek.

Gaizka Peñafiel artistaren bigarren diskoa da "Lagunartean". Bi diskoen artean ez dago lotura handirik. Gaizka Peñafielek bereak eta bost eman ditu bigarren hau argitaratzeko. Bereak eta bost musikaren sorkuntza aldetik. Bereak eta bost musikari lagun berrien ekarpenaz harro egoteko, hamaika musikari laguntzaile hurbildu baitira "Lagunartean" egitasmora. Beti esan ohi da lagunarte onak emaitza onak baino ez dituela ondorio. Horrela izan da. Oso disko irekia da Gaizka Peñafielek sortu duena. Pop doinuak dira nagusi kantu guztietan folkarekin zoragarri nahastuta. Pop-folkaren pisua dotore darama diskoak. Trikiaren nortasuna ez da galdu trikitilariaren abiapuntuan eta, beraz, definitzeko modu bat izan daiteke pop-folk-triki disko goxoa dela "Lagunartean". Kantuak erraz eta samur sartuko zaizkigu. Melodia korapilatsurik ez dago, helburua ahalik eta eztien helaraztea doinuen laguntasuna. Ahots xumeak doinu eta melodien zirrikitu txikiaren babesean.

Gaizka Peñafiel trikitilari eta musikariak bere ohiko musika tresna ahanzi gabe, musikaren beste esparru batzuetara egin du jauzi. Gaizka Peñafiel musikariaren lana pop-folk-triki ikuspegiko doinuetara etorri da. Urrats horrek bere zergatiak izango ditu, ezta?

Trikitixa izan dut batez ere lagun gaztetik, baina beste musika tresna eta estilo musikalek erakarri izan naute betidanik. Sortze prozesuan gitarrak erosoago sentitu izan naiz, musika eta hitzak hobeto azalera zirelako honela niretzat, zein estilotan ari nintzen pentsatu gabe. Nabarmendu nahi dut kanta gehienak oso generikoak direla, norberak entzuterakoan bere egiteko.

Ohituta gaude kant autorearen bere bakardadearen defendetzaile ikusten. Gaizka Peñafielek lagunarte bat eta gehiago batu ditu bere diskoan. Musikarien lagunarteko babes, nolakoa izan da? zertarako?

Bada kontraesan hori bakardade eta lagunartean artean diskoan. Sortzea bakardadean, loratzea lagunartean. Lagunek emandako babes eta ekarpenak funtsezko izan dira lan honetan, jantzi egin baitituzte konposizio biluzi haiek.

Hitzen txukuntsuna pop-folkaren gardentasuneran txorrotetik lasai eta trebe edaten. Ahots gardenak arrastoa utzi nahirik hitzen lirikotasunean?

Ahotsa baino, mezua eta melodia dira niretzat garrantzitsuagoak. Norberak kantatu izana borobildu baino ez du egiten aurrekoa. Hitzak eta melodiak freskoak eta bapatekoak, forzatu gabekoak.

ritxi aizpuru (2011ko azaroaren 25a)



www.gaizkapenafiel.com

 baga-biga musika ideiak
telf. 618 072 076 / 026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com

